

# GASHERBRUM IV

## Iparmendebalde ertzea

Kike de Pablo



▲  
Goi aldean.  
Bigarren kanpamendua  
eguraldi txarra pairatzen.  
Esker aldean.  
Gasherbrum IV beheko  
kanpamendutik ikusita  
(200 mmtako telefotoa).  
Korearrek eskalatu zuten  
aurrez aurreko ertzea.  
Erdi aldean.  
7200 metrotako urkulean.  
Eskerrean Baltoro glaziarra.  
Eskuma aldean.  
Goian.  
Igotzen 1000 metrotako  
korredorea, bigarren  
kanpamendurako bidean.  
Behian.  
7000 metrotara ailegatzen.  
Sakonean ikusten da  
iparmendebaldeko ertzeke  
bigarren zailtasun zatia

▼





ARGAZKIAK: KIKE DE PABLO

## Berrogeitazortzi egun inguru hartan

Uztailaren erdirako beheko kanpamenduan gaude eta berriro igoko ez garela erabaki dugu. Nekaturik, ez, hori ez da hitza, birrinduta, lehen eginda gaude, mendian aritzeko inolako indarririk ez. Berrogeitazortzi egun eman dugu inguru hartan gure desioak, grinak asetzen saiatzen. Hutsala. Tontor ertzetik ibili barik geratuko gara, agian-nork daki?- betirako.

Bigarren kanpamendua utzi dugu goiz-goizean, egunsentian, zerua guztiz estalita, ziztu bizian zetorren hodei fronte ilunak gauza onik ez zekarrelakoan, eta beheko kanpamendura heldu gara ekaitz bizian, euri jasa izugarrian, eta pensatu dugu, jeisteko erabakia egokia izan dela azken finean.

Alferrik suertatuko da. Hurrengo eguna kristona izango da, eguzki eztitsua eta sosegua nagusi, momentu latzak gure gogoan inon, inoiz existitu izan ez balira bezala. Beno, aitzakiarik ez daukagu jadanik. Zer egin daiteke ba?

Bukatutzat dugu gure eskalada saio madarikatu hori, astoen antzera ibiltzen, zama, haize bolada ikaragarriak, abalantxak eta elur sakona (Noraino?. Ondo dakizue noraino heltzen zitzagun elurra; horraxeraino alegia) jasaten egun batean... eta hurrengoa be. Bai, zailtasuna, banaka aintzakotzat hartzen baditugu ez dira hainbesterako baina, hala eta guztiz ere, guztia orokorrean hartuta... Enfin! nahikotxoa izan dira. Gure egoera honetara heltzeko beste behintzat.

Bi saiotan heldu gara hirugarren kanpamendua ipini dugun ingurueta (7000 metroan) soka finkoa jartzen eta bide batez elurretan gure igeri egiteko gaitasuna lehian jartzen. Eguraldia hobetu denerako han gaude berriro oraingokoan tontorrera heldu arte ez jeisteko asmoz. Ion eta Jose Carlos hurrengo egunean bigarren ertzeko zailtasun zatia gainditzan saiatzen diren bitartean nik mando lana egiten gorantza ahalik eta soka eta janaria gehien garraiatzen.

Hurrengo egunak harapatzen gaitu Jose Carlos eta biok harkaitz eta elurrezko zatirik zailena eskalatzen saiatzen. Denbora aurrera doan heinean nabariagoa da gure nekea eta areago, tontorrerantzako saio bat egiteko gai ez garela izango. Zailtasun zati hau eskalatzeko berrogeitahamar metro geratzen denerako jeisteko erabakia hartzen dut eta ordu bete ematen dut iltze ala klabijak sartzen saiatzen beherantzako "rapela" egin ahal izateko.

7300 metroara inguru heldu gara eta bukatu zaizkigu aukera guztiak.

## Eguraldi ona eta gu hemen indarririk gabe

A zer bizitza! Eguraldi eder horrekin eta gu holan indarririk gabe. En fin! esaten den moduan "A ze grazia, ilerik gabe eta orrazia!". En fin -berriro diot- dena ezin da eduki, eguraldi, baldintza onak... eta indarrak.

Eta zer nolako oztopoak geratzen zitzazkigun?. Ba beno, ia ezer ez. Zati horren gainean bibak bat jartzea. Hurrengo egunean hirurehun metrotako -desnibelez- elur malda gainditu eta segituan agertzen den beste hirurehun metrotako -bai, altueraz!- harkaitz eta izotz horma eskalatzea ipar tontorrera heltzeko (ia 7900 metroan). Handik bostehun metrotara tontor nagusia dago (7925 m) harkaitz eta elurrezko mendebaldeko maldan zehar... eta gero... gerokoak. Zehar bide hori desegin behar eta jeitsi behar eta abar... eta abar behar... eta guzti hau gutxi ez balitz oso-osorik, sano-sano jeitsi behar, komenigarria da behintzat. Ez digu balio istripuren bat ala izotz lesioak ukituak jeitsi ahal izateak! Hori ezetz!. Enfin! -berriro diot- ia deus ez! ondo baino hobeto ulertu duzue. Eta hau da dena. Eta hau dena ez bada guztxienez agian zuei interesatzen zaizuen.

Batek daki! Behar bada noizbait agertuko gara berriro izotz eta arrokazko multzo polit horretan eta orduan jarraipena kontatuko dizuet. Bai! Baliteke... □